



ARANGUREN IBARREKO UDALAREN INFORMAZIO BULETINA

# EUSKARA ZERBITZUA

[www.aranguren.es](http://www.aranguren.es)



## EUSKARALDIA IV. EDIZIOA

### INFORMAZIO GEHIAGO

20R →	EUSKARALDIA	60R →	DENONTZAT
30R →	HAURTZAROA, MATRIKULAZIOAK	70R →	BALIABIDEAK... KLIK BATEAN
40R →	HAURTZAROA, JARDUERAK	80R →	DENBORA-PASAK
50R →	GAZTE ETA HELDUAK		

LG NA 136-2025



# Euskaraldia IV edizioa

2018an abiatu eta korrikarekin txandaka bi urtez behin euskara bultzatzeko antolatu den ekimen honen laugarren edizioa ospatuko dugu aurten Aranguren Ibarrean maiatzaren 10etik 25era. Euskara ulertzen duten hiztunen hizkuntza-ohiturak aldatzeko mugimendu sozial gisa definitu da Euskaraldia. Bere helburuen artean euskararen erabilera aktibatzea eta euskaldunak saretzea egongo lirake

2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

## EUSKARALDIA

*Elkar mugituz  
egingo dugu*



Informazio gehiago:  
euskaraldia.eus webgunean



Aurreko edizioan Euskal Herri guztian zehar 158.440 lagun eta 8.160 entitate animatu ziren izena emanez Euskaraldian. Honetan ere denon partehartzea garrantzitsua izanen da, laster ibarrean eratuko den **herri batzordean parte hartzera animatu nahi zaitugu!** Jarri harremanetan Aranguren Ibarreko Euskera Zerbitzuarekin interesa badaukazu.

Antolatzaileek **lelo** gisa *Elkar mugituz egingo dugu* aukeratu dute, izan ere lehen hitzetik euskaraz eginda, edo ahal den guztietan euskara erabilia, mugitu egiten ditugu solaskideak, eta jendartea bera. Baina jarrerak bakarrik ez, **emozioak ere mugitu** egiten ditu Euskaraldiak, guztion ondare den hizkuntza honek mugiarazten dituen sentimenduekin sakontasun emozional kolektiboa sortuz.

**Soinu banda ofiziala** dauka ere edizio honek *Gure Bihotzaren Taupadak*, mundua aldatzeaz mintzo egiten duen abesti bat BULEGO talde Azkoitiarraren eskutik.

Maiatza euskaltzaleentzako hilabete izugarria izango da aurten, Euskaraldia hasi baino lehen Ibarreko **Euskararen Astea**, maiatzeko 2tik 10era, mingaina eta belarria berotzeko aukera izango dute. Euskararen Egunean, maiatzak 10 larunbata, bi ospakizun handi hauek elkartuko dira **Mutiloan**

**Maiatzaren 10etik 25era ahobizi edo belarriprest bezala identifikatuko zaituen txapa janztera eta udalak Irulegi Euskara taldearekin elkarlanean antolatuko dituen ekintzetan parte hartzera animatzen zaitugu!**

## Haurtzaroa



### 0-2 URTE

►2023tik 2025ra jaiotakoak



TTIPI TTAPA HAUR ESKOLA

📍 IBAIALDE PASEALEKUA 1 📧 Eposta: [ttipittapa@ttipi-ttapa.es](mailto:ttipittapa@ttipi-ttapa.es)  
☎ 948 231 593

Ttipi-ttapa Haur Eskolan **izena emateko epea** Aranguren Ibarreko Udalaren webgunean martxorako agertuko da.

Euskara Zerbitzutik TTIPI TTAPA haur eskolan **euskarazko lerroan izena emateko** gonbitea luzatzen dizuegu. Adituek **hizkuntzen ikaskuntza goiztiarra bertako hizkuntza propioekin** hasia gomendatzen dute, gure kasuan **euskararekin**, hurbilagoak direlako eta enpatia handiagoa eta erabiltzeko aukera gehiago ematen dituztelako.

TTIPI TTAPA Haur Eskolako euskarazko lerroan, haurrak jokoaren bidez eta euskara erabiliz hasten dira beren euskara gaitasunak garatzen, modu natural batean eta hizkuntzaren garapen eta eboluzioarekin batera.

### 3 URTE ►2022an jaiotakoak

Euskara Zerbitzutik haurrak Ibarreko Irulegi Ikastetxe Publikoan matrikulatzeko gonbidapena luzatzen dizuegu: **D ereduan**. Eredu honetan euskarazko **murgiltze goiztiarra** egiten da. Familian euskararekin harremanetan ez dauden haurren kasuan, ikasleak gaztelaniazko esperientziak eta euskarazko ekoizpen berria uzartzen ditu, pertsonengan gaitasun linguistikoa bakarria baita.

Eredu honetako ikasleek, derrigorrezko irakaskuntza bukatzerakoan, **“erabiltzaile gaitua, maila aurreratua”** izeneko **euskara maila** lortzen dute (**B2**, Europako Erreferentzia-Marko Bateratua), **eredu honetan bakarrik berma daitekeena**.

📍 IRULEGI MENDIA K/ 1

INFORMAZIO GEHIAGO:

🕒 ATE IREKIAK: OTSAILAK 5 ETA 6,  
16:45ETAN

☎ 848 980 080  
📧 Eposta: [irulegiip@educacion.navarra.es](mailto:irulegiip@educacion.navarra.es)



## Musika eskola



Euskara Zerbitzutik eskolatik kanpo herriko beste neska eta mutikoekin harremanak euskaraz egitea eta euskarazko beste erregistro batzuk garatzea garrantzitsua dela uste dugu eta horregatik, **Musika Eskolako euskarazko lerroan** izena emateko gonbitea luzatzen dizuegu.

Ikasturte honetan, **Musika Hastapenetako maila osoa (Haur Hezkuntza 1. mailatik Lehen Hezkuntzako 1. mailara)** eta hurrengo mailako lehen ikasturtea (**Lehen Hezkuntzako 2. maila**) euskaraz egiten ari dira haien musika ikasketak. Adi aurre-matrikulazio datei!

📍 INFORMAZIO GUZTIA ARANGUREN IBARREKO UDALETXEKO WEBGUNEAN PUBLIKATUKO DA





## Inauterietako tailerra



2013 eta 2021 artean jaiotako Aranguren Ibarreko haurrek, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak antolatutako **inauterietako tailerrez gozatu** ahal izango dute.

📅 **MARTXOAREN 3TIK 4RA EDO 3TIK 7RA AUKERAN**  
📍 **9:00ETATIK 14:00ETARA**  
📍 **SAN PEDRO IKASTETXE PUBLIKOAN (MUTILOA)**

Tailerretan **izena emateko 012ra** deitu beharko da **otsailaren 10ean eta 11an** (errolatuta dauden pertsonak) eta **otsailaren 12ean** (errolatu gabeak), **08:00etatik 18:00etara** (dei kostua 0,34 €, edo 948 012 012 zenbakira doan tarifa finkoa dutenentzat).

**INFORMAZIO GEHIAGO:**

☎ **948 15 13 82**  
✉ **Eposta: rgarralda@aranguren.es**



## Antzerkia familian

### Altxor Kutxaren Bila

Maitane Pérez eta Eva Azpilicueta

Sarrera salmenta laster [www.aranguren.es](http://www.aranguren.es) webgunean edo Kultur Etxeko lehiatilan

📅 **OTSAILAK 23, IGANDEA**  
🕒 **12:00 IRAUPENA 55 MINUTU**  
📍 **KULTUR ETXEAN**  
💰 **4 €**  
▶ **4-12 URTEETAKOENTZAT GOMENDATUA**



## Ipuin kontalaria


Ventura Ruiz

📅 **MARTXOAK 12 ASTEAZKENA**  
🕒 **17:00**  
📍 **KULTUR ETXEAN**  
💰 **DOAN LEKUAK AGORTU ARTE**  
▶ **4 URTETIK GORAKOENTZAT GOMENDATUA**

FINANCIADO POR



## Bertso bazkaria



**Irulegi Euskara Taldeak prestatutako herri bazkari hau NEREA IBARZABAL eta JOANES ILARREGI bertsolariek girotuko dute.**

📅 **MARTXOAK 15, LARUNBATA**  
🕒 **14:30**

Txartelak Kultur Etxean **salgai** egonen dira **martxoaren 3tik 7ra**  
**Informazio gehiago:**  
[irulegieuskarataldea@gmail.com](mailto:irulegieuskarataldea@gmail.com)



## Irakurle taldea



Hilabete bakoitzeko azken ostegunean Ibarreko euskarazko irakurle taldea elkartzen da, 19:00etan, Kultur Etxean. Irakurle Talde honen hurrengo irakurgai eta saioei buruzko informazioa jaso nahi baduzu, bidali

mezu bat [irulegieuskarataldea@gmail.com](mailto:irulegieuskarataldea@gmail.com) mailera eta idatzi zure izena, zure abizenak eta zure sakelako telefonoaren zenbakia.



## Sukaldaritza tailerra



Helduei zuzendutako sukaldaritza tailer honetan bi plater gozo-gozo prestatzen ikas dezakezu eta tailerra amaituta dastatu egingo dira, dena giro adiskidetsu eta euskaldunean.

📅 **MARTXOAK 19 ETA APRILAK 2**  
🕒 **19:00-21:00**  
📍 **MUTILOA ELKARTEA**  
💰 **20€ IRULEGI EUSKARA TALDEKO BAZKIDEAK / 30€ EZ BAZKIDEAK**

Plaza mugatuak.  
**Informazio gehiago:**  
[irulegieuskarataldea@gmail.com](mailto:irulegieuskarataldea@gmail.com)



## Ikasi te gozo-gozoak prestatzen sendabelarrekin

Sendabelar ezberdinak ezagutuko ditugu eta errezeta batzuk prestatuko ditugu (infusioa, egosketa, beratzea).

📅 **OTSAILAREN 24AN, EUSKARAZ**  
🕒 **17:30-20:00**  
📍 **KULTUR ETXEA, MUTILOA**  
💰 **3 €**







## Santa Ageda

Urtero bezala, **Irulegi Euskara Taldeak SANTA AGEDA BEZPERA** antolatuko du, Mutiloako Kale batzuk zeharkatzeko aukera izango dugu egurrezko makilen kolpeen erritmoan abesten dugun bitartean baita kalejiran parte hartuko duten trikitilariekin dantzatzeko aukera izango dugu ere. Amaitzeko, gosea pintxo-pote batekin kendu ahal izango dugu

■ OTSAILAK 4, OSTIRALA

📍 KALEJIRAREN IRTEERA: MUTILOA PLAZA 18:30

🕒 PINTXO-POTEA: 19:30 ARANETXEAN

■ INFORMAZIO GEHIAGO:

irulegiuskarataldea@gmail.com



Antolatzailea:  
Irulegi Euskara Taldea



## Tailer familiarra gosari eta askari osasungarriak

5 urtetik gorako hurrei zuzendua, pertsona heldu batek lagunduta.

Tailer praktikoa, aukera osasungarri eta jasangarri ezberdinetako elaborazio errazak barne hartzen dituena (tokikoa, sasoikoa, freskoa, ekologikoa eta lehen sektoreak hornitua), nutrizioaz giro lasaian hitz egiten den bitartean

■ OTSAILAREN 14AN

📍 17:30ETIK 19:00ETARA. KULTUR ETXEAN

€ 5 € FAMILIA UNITATE BAKOITZEKO



## BAZKIDE EGUNA



**Irulegi mendia, bazkaria eta ilundaineko baserri-eskola**

■ APIRILAK 6, IGANDEA

🕒 10:00ETAN ILUNDAINETIK IRULEGIRA IGO

13:30 BAZKARI AUTOGESTIONATUA TXIKIAK

14:30 BAZKARI AUTOGESTIONATUA HELDUAK

€ PREZIOA: 1€ HAUR BAKOITZA ETA HELDU BAKOITZA PLAZA MUGATUAK

*Bazkariaren ostean  
Ilundaineko-Baserri-Eskola  
bisitatuko da.*



Antolatzailea:  
Irulegi Euskara Taldea

■ INFORMAZIO GEHIAGO:

irulegiuskarataldea@gmail.com

## TXANGOIA BAIGORRIRA:



**Nafarroaren eguna Baigorri irudia**

Oraingoan Irulegi Euskara Elkarteak Baigorri herrira joateko aukera ematen du, Nafarroa Garaia eta Beherearen arteko batasun kulturala aldarrikatzeko 1978. urtetik Baigorri ospatzen den jaialdira.

→ Txartelak salgai egonen dira Kultur Etxean **apirilaren 7tik 22ra** (Itxita 17-21 egunetan)

→ **Bazkaria:** aparte. Bertan erosi ahaliko dira herri bazkarirako txartelak.

■ APIRILAK 27, IGANDEA

📍 IRTEERA 9:00 H. IRULEGI I.P.-AREN APARKALEKUA

€ 10€ HELDUAK / 12 URTETIK BEHERAKOAK: 5€

■ INFORMAZIO GEHIAGO:

irulegiuskarataldea@gmail.com



Antolatzailea:  
Irulegi Euskara Taldea



## era.eus

era.eus webgune honen helburua **euskaraz ikasten duten haurren gurasoei** beren 0 eta 12 urte bitarteko seme-alaben ikas-prozesua osatzeko **laguntza eta baliabideak eskaintzea da**. Haurrek ikastetxeetan dagokien adinerako ezagutzak eta gaitasunak jasotzen eta garatzen dituzte, baina euskarak gizartean duen presentzia desorekatua kontuan hartuta, ezagutza eta gaitasun horiek **eskolaz kanpo ere indartzea** egokia da, esaterako, etxean, kultur jardueretan edo eskolaz kanpoko jardueretan.



## elaide.eus



elaide.eus plataforma digitalak laguntza eta baliabideak eskaini nahi dizkie euskaraz ikasten duten edo euskararen mundura hurbildu nahi duten helduei.

## EUSKALDUNEN FITXATEGIA



2010etik aurrera jaiotako (15 urte baino gutxiagoko) seme-alabaren bat baduzu eta euskaraz edo euskarari buruz antolaturiko jardueren berri jaso nahi baduzu, deitu edo idatzi Euskara Zerbitzura eta fitxategiko fitxa bete.

2009an Aranguren Ibarreko Udalak Ibarreko Euskaldunen Fitxategi bat sortzea erabaki zuen. Fitxategi horren helburua hala nahi zuten biztanleei Ibarrean antolatzen diren euskarazko edo euskarari buruzko jarduerak modu eraginkorragoan jakinarazi ahal izatea da. Horrelako jardueren berri jaso nahi baduzu, jar zaitez udaleko Euskara Zerbitzuekin harremanetan:

→ **Fitxategian egoteko fitxa bete zenuenetik zure daturen bat (e-posta, telefonoa...) aldatu baduzu**

→ **15 urte baino gutxiagoko seme-alabaren bat baldin baduzu (2010etik aurrera jaiotakoa).**

## Euskara Zerbitzua

Udalaren helburua Ibarreko talde eta norbanakoekin elkarlanean aritzea da. Ibarrean euskaraz edo euskarari buruzko jardueraren bat antolatzeko proposamenik baldin baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan.



Aranguren Ibarreko Udala, 1. pisua.  
Mutiloa pl/ z/g. Mutiloa



Astelehenetik ostiralera 9:00-14:00




948 15 01 93



euskera@aranguren.es / www.aranguren.es

Autodefinitua



		MAGOA IZERKARI (BI HITZ)		ZUKU OILARRAK OINEAN DUEN IRTENGUNE		ZEHARRALDATU DAUKA		BANEUKA IHIAK		KAFEA HAR- TZEKO ONTZIA PANAMAKO HERRITAR
		EUSKAL FONEMA ERRETZEKO TRESNA		KOIKEAK, GANTZAK LANABES						
					BAKOITZARI LAU GAIZKI ESAKA ARITU					
ZUBI SARIA KO- BRATZEN ZUENA ANTZINAKO MONETA	PAIRATU GAR		ESPIRITUAK NORBAITI EGOKITZEN ZAION PARTE					OROTS EGOKI		
				ERAKUNDE BELIKOA DENDA MOTA			KORTEZUBIKO AUZOAK, BIZKAIA URMAEL, PUTZU			
ILUNDAINGO IBILBIDEA BIRAKA									EGIATAN	
				USO AR LARRUAZALEKO GAITZ			BIGARRREN MUSIKA NOTA ... DE JANEIRO, BRASILGO HIRIA			
AZKEN LETRA HEMEN DAGOENA	NAZARETEN JAIKOA GARAI, ALDI							GIGA KONTSUMO- RAKO PREZIOEN INDIZEA		
		ZIBURUKO MUSIKA TALDEA HERRI HIZKERAN, ETA			HOZKADA EUSKAL HERRIA					
INFORMATIKA SARE ERRALDOI MOMENTUAN						EDALONTZI OINDUNA NITROGENOA				
					BAKOITZARI EHUN			IZENA (LABURDURA)		

Gurutzegrama

1	2	3	4	5	6	7	8



**EZKER-ESKUIAN**  
 1. Izan. | Konparazioetako atzizkia. 2. Kontsonante errepikatua. | Xakean, lehen leerroan jartzen den fitxa. 3. Doilor, zikoitz. | Radonaren sinbolo kimikoa. 4. Ines..., Gose taldeko abeslaria eta soinu jotzailea. 5. Izatea. 6. Aitona, Bizkaian. 7. Argazkiko parajea. 8. Bi atalez osatutako hainbat gauzatan, atal zulodunaren barnean sartzen dena. | Uzkurra, zapaldua. 9. Zerga. | Torturaren Aurkako Taldea. 10. Zerezko atzizkia. | Fruituetatik ateratzen den likido.

**GOITIK BEHERA**  
 1. Uso. | Gastagintzan erabiltzen den zurezko ontzi, kaikua eta goporra baino handiagoa. 2. Epe larri. | Txakurrak. 3. Egunsentiko argizagi. | Begira. 4. Anaiartera, bereziki erlijiozko helburua duena. 5. Itxurak. 6. Lehen bi bokalak. | Eritu. 7. Goiko tokira. | Samoako diru unitatea (pl). 8. Bertsio lerroaren osagaia den eta hura neurtzeko erabiltzen den silaba multzo. | Bigundu, samurtu.

Hitz gurutzatuak

Ematen dizkizuegun zenbakiez baliatuz, kokatu gauza hauen izen bakoitza bere tokian.

Hizki zopa

Aurkitu zopan Aranguren Ibarra osatzen duten zortzi herriak.

P R A G O N G O I F A O E A Z K U U X J D R A T M F P M  
 U U I X E O L B G X D S N Z H A I U A N S B O A N O A D  
 K N P F G K F E R U A T X B R Z T M L A B I D M H E M H  
 R I G E A S I R L P N N S O U L I X A B T B X Z H L M T  
 A X U X T A J A H D G N G X N B I H I F Z R X B I S B S  
 K L I P I M H R H M F N P N A S R L O P I T O L O D I S  
 G U R E U M E A K M O I B O A U M U L I T O H A G H F A  
 U X G P O H H N J G T H E E E U M E N Z G F L E O G S S  
 T T X I D S N G R A U T A X O I L G U R E N A R E B E N  
 M D A O N M K U G N G N A I M L X Z L X T L H E G L A R  
 I T H H A I K R A F L M E U K R K N E A F F S L A K I O  
 P P B I O M P E U U B O T S F B X R B E K D N E E E J U  
 N O A N O I N N R X T I R O K I A B P L P I F D I E H G  
 I K B Z O L I A O B L L E S X O J L Z S P O D L Z A F O  
 A L A B I A N O Z O J L O L X Z T R A L I O H A N B T D  
 D L A R T F N G A B U E G A Z G A L O S K T Z I X R J  
 N I G E H O H L O E F K T X I I H U B M B M L F S N D F  
 U E U G P D U X N D K J T N Z O L I X I E O R E K O K L  
 L E I Z A I L O I L N H F D L I N A Z L Z D I J B B K G  
 I X I Z L F O X I O R E E M P F I T O S P B J U J P O M

Ebazpenak